

Almikako elizarantz abiatuz, bere eskuinaldetik jaisten den bidea hartzen dugu. Birjiñean berezitik berantz eginez, Artika auzoko errepidea jotzen dugu, justu bere azpitik Iturrizarre erreka pasatzen den unean. Orain, errepidean eskuinera egiten dugu, Artiketxe, Paskualetxe, Bengoetxe baserrien ondotik pasatuz. Irabiene baserrira iristean, bere atari aurretik sartzen den bidea hartzen dugu, Artikerreka igaro ondoren ezkerrera eginez.

Aldatz gora jarraitzen dugu Enparane baserrira heldu arte. Hemen baserriaren aurretik gora eginez, Bermeo eta Mundakako udalen arteko muga ondotik goaz. Aldapan bertan mugarri handi bat ageri da. Aldapa buruan Bidezabale izenekoa aurkitzen dugu eta hemen ezkerrera egiten dugu, iparraldera, alegia.

Laster iristen gara Atxiturriagara, hau da, Perretxineko (edo Zarraneko) erreka sorburura. Aurrera jarraituz, Mundakako eremuan gaudela, herri horretako ur-biltegiara heltzen gara. Eskuinera gorantz eginez Katillotxura iritsiko ginateke baina oraingoan ezkerrera egingo dugu, beherantz, Bermeoko eremuan sartzeko berriro. Aldapa behera eginez eta Gantxu izeneko tontorraren ondotik pasatuz, Mundakako Goitiz auzora doan bidea eskuinean utzi eta Demikurantz jarraitzen dugu. Damikun gaudela, Errenta eta Beiti baserrien artetik egin eta beherantz doan bidea hartzen dugu, aldatz behera bidea eginez Zarran baserrira iristeko. Hemendik herrira egiteko bidea jarraitzea besterik ez zaigu geratzen. Kurtzio jo eta Santamariñara ateratzen gara.

